


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GASTEIZKO HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

NOLA LANDU IDAZKETA SORTZAILEA

EGILEA: URRIOLABEITIA URIBARRI, ENERITZ

ZUZENDARIA: RODRIGUEZ MIÑAMBRES, PALOMA

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	1
1. JUSTIFIKAZIOA	3
2. HIZKUNTZA ETA LITERATURA.....	4
3. TAILER LITERARIOAK.....	5
Estatu Batuetan	6
Latinoamerikan	7
Frantzia.....	8
Italian.....	9
Espainian	9
4. IDAZKETA SORTZAILEA	10
5. HELBURUAK.....	14
6. ESKU HARTZEA	15
6.1 LEHENENGO SAIOA	15
6.1.1 Hasierako galdetegia	15
6.1.2 Bideoa	15
6.1.3 Enkantea.....	16
6.2 BIGARREN SAIOA	17
6.2.1 Zenbait proposamen	17
6.2.2 Irudiekin istorioa.....	19
6.2.3 Amaierako galdetegia	19
7. EMAITZAK.....	19
7.1 Hasierako galdetegia.....	20
7.2 Enkantea.....	24
7.3 Zenbait proposamen	26
7.4 Irudiekin istorioa	27
7.5 Amaierako galdetegia.....	30
8. ONDORIOAK.....	32
9. MUGAK ETA HOBEKUNTZAK	33
10. BIBLIOGRAFIA.....	35
11. ERANSKINAK.....	1
11.1 ERANSKINA	1
11.2 ERANSKINA:	2
11.3 ERANSKINA	3
11.4 ERANSKINA	4



11.5 ERANSKINA.....	5
11.6 ERANSKINA.....	6

LABURPENA

Lehen Hezkuntzako curriculumean gaitasun komunikatiboaren garrantzia berresten da. Horiek horrela, tailer literarioetan zein garrantzitsua den hizkuntza eta literatura lantzea azalduko da, izan ere, gaitasun komunikatiboaren eta sormenaren oinarria dira. Hortaz, sormenak, literaturak eta hizkuntzak, batak bestea landuaz, pertsonon gaitasunak osotasunean garatu ahal izango dira. Esangura horretatik, tailer literarioak aurkeztuko dira eskolan balizkoa den irudimena garatzeko den tokia aurkeztuz. Beraz, hizkuntza idatziaren konpetentzia garatzeko eta sormen gaitasuna trebatzeko bidean, Estatu Batuetan, Latinoamerikan, Frantzia, Italian eta Espainian famatu egin diren teknikak aintzat hartu dira. Ildo beretik, idazketa sortzailea lantzeko teknika horiek etorkizunean dozentzian arituko diren Haur Hezkuntzako ikasleekin probatu dira, ariketa anitzen arrakasta proban jarrita.

Hitz gakoak: idazketa sortzailea, sormena, idazmena, literatur tailerrak, hizkuntza eta literatura.

RESUMEN

En el curriculum de Educación Primaria se confirma la importancia de la competencia comunicativa. Por ese motivo, se expondrá la importancia de trabajar la lengua y la literatura en los Talleres Literarios ya que, son la base de la capacidad comunicativa y de la creatividad. Esta última, junto con la literatura y el lenguaje, trabajando en conjunto, permitirán desarrollar las capacidades de las personas. La escuela será el lugar donde presentar los talleres literarios por su gran capacidad de desarrollo creativo. Es por ello que en el proceso de desarrollar la competencia escrita y creativa, se han tenido en cuenta las técnicas que se popularizaron en Estados Unidos, Latinoamérica, Francia, Italia y España; incluso se han llegado a probar también, con los futuros docentes de Educación Infantil, poniendo a prueba el éxito de diferentes ejercicios.

Palabras claves: escritura creativa, creatividad, escritura, talleres literarios, lenguaje y literatura.

ABSTRACT

The magnitude of communicative purview is confirmed by Elementary Education's curriculum. Thus, the relevance of working on language and literature, which are essential in the communicative skills and creativity, will be exposed on literary workshops. Consequently, creativity, literature and language, being together, will allow to develop people's abilities. Therefore, literary workshops will be introduced at school, where creativity can be expanded. Different techniques that became popular in United States, South America, France, Italy and Spain have been taken into account in the process of developing written competences. Besides, these techniques of creative handwriting have been tested on Elementary Education's future teachers, challenging the success of different exercises.

Key words: Creative handwriting, creativity, writing, literary workshops, language and literature.

1. JUSTIFIKAZIOA

Idazketa garrantzi handiko tresna dugu bizimoduan. Hizkuntza tartean, idazketaz beti dago zer ikasi eta zer hobetu, egungo egoerara moldatzen jakin behar dugun erara. Idazketarekiko motibazio faltagatik, esangura handia hartzen du irakasleak idazketarekiko hartu behar duen ardurak. Irakasleak ikasleei garrantzia hori transmititzen jakin behar du eta, aldi berean, metodologia eta baliabide ezberdinez jabetu behar da, ikasleek oinarrikoa duten idazteko gaitasunaz gozatzen jakiteko. Idazketari, disfrutatzearen sentimendua biziarazteko, sormenaren esangura erantsi zaio eta hori ezin daiteke ulertu Hizkuntza eta Literatura ezta tailer literarioak aipatu gabe.

Sormen gabeziaren aurrean, tailer literarioaren proposamena zabaltzen da idazketa sortzaileari tokia egiteko eta toki horrek Hizkuntza eta Literaturaren ikasgaiari hartzen du lekua. Sormenezko idazmenak gaitasun komunikatiboan aurrera egitea bultzatzen duen erara, garapen pertsonalean ere badu eragina. Batzuetan, teoria informazio hutsalean gelditzen denez, lan honetan edukia ezik, praktikara ere eraman dira zenbait jarduera. Planteatutako ariketak, sormen trebetasunaren eta idazketarako gaitasunaren oinarrian, modu motibagarrian lantzeko ikuspegitik jorratu dira.

Ido pertsonaletik, nire hezkuntza ibilbidean ez dut idazmenaz gozatzen ikasi, ez idazketa disfrutatzeko erabili ezta idazketa sortzaileaz probatzeko aukerarik izan Lehen Hezkuntzako gradura jo arte. Gradu honetan zehar, Hizkuntza eta Literaturako ikasgaiari, hizkuntzaren, literaturaren eta lengoaiari idatziaren axola handiaren kontzientzia hartzen joanaz, idazmena modu ezberdinean planteatzeko ikuskera zabaltzen zait. Idazketa sortzaileari buruzko jakin minak piztuta, laugarren mailako praktikumean teknika horiek probatzera eraman ninduen. Saiakeran, teknika diferenteak egingarriak direla eta funtzionatu zutela erakustean, frogaren berresteko asmoarekin, GRAL hau aitzakia hartuta, Lehen Hezkuntzako kideentzat euskarri izango diren Haur Hezkuntzako etorkizuneko hezitzaileekin ere probatzeko apustua egin dut. Idazketa sortzaileko dauden ariketa asko adin guztietarako baliogarriak izateaz gain, ezkutaturiko alor honi buruzko informazioa konpartitzeko gustua izan dut.

Horrekin guztiarekin, marko teorikoaren abiapuntua Hizkuntza eta Literaturak, Tailer Literarioak eta idazketa sortzaileak markatuko dute, ondoren, praktikara eramandako metodologia, emaitzak eta ondorioak azaldu ahal izateko.

2. HIZKUNTZA ETA LITERATURA

Literaturaren hastapenari dagokionez, ahoz aho behin eta berriro kontatzen ziren istorioetatik hasi zen. Ondoren, Literaturaren ondarea elizgizonena ez beste inoren domeinupean gelditu zen. Istorioak idatzira pasatzean, herriak idatzi zuen Literaturaren ondasuna klase maila altukoaren esku geratu zen. Gerora, Hezkuntza Sistemari Literatura sartu zenean, gozatzeko aukeratzat jo beharrean, ikasi eta miretsi beharrezat ulertu zen. Lehenengo gailendu zen metodoan autoreen bizitzak eta obrak ikasgarritasun ziren eta gero, Formalismori errotuta, testuen edo liburuen iruzkinak egiten ziren (Alonso Amezua, 2008; López Valero, 2000).

Hizkuntzak duen esanahiari dagokionez, Bernstein-en (1988) hitzetan, hizkuntza bizitzan berebiziko garrantzia duen tresna da eta, horretaz baliatuta, eskolak bere helburuak lortzea ahalbidetzen du. Pertsonok komunikatzearen beharrezkin, ahoz ala idatziz egiten dugu eta horrek elkarrekintza soziala bermatzen du. Zeharkako trebetasuna izanik, bizitzan egiten ditugun ekintza guztietan presente dago non, lantzeko aukera asko dituen. Collado-ren (1973) ikerkuntzan Sapir-ek hizkuntzaz zeritzon, norbanakoak bere errealitatearen errepresentazioa komunikatzea ez ezik, ideologia, lexikoa eta ezaugarri linguistikoa ere erantsita daramala zioen (López Valero, 2000).

López Valero-arentzat (1998) hizkuntza ez da analisirako objektu estatikoa baizik eta prozesu dinamikoa eta sortzailea da. Hori betetzeko, ikaslearen interesetan oinarrituz orientatu behar da irakas-ikaskuntzaren didaktika. Irakaslearen rola esanguratsua denez gero, ikaskuntzarako oinarri aproposak sortu behar dira: helburuen planifikazioari, zereginei, *input*-ari eta *output*-ari dagozkienak. Helburua pertsonak osotasunean garatzea da eta horretarako, ikaslearen potentzial guztia lantzerako bultzatu behar da, gaitasun komunikatiboa eta linguistikoa barne. Hezkuntzako egungo oinarrietan, hizkuntzaren erabilera gorenaren da fokuratu komunikatiboarekin, hots, hartzailak testuarekin interakzioa izan behar du. Baita ere, testu literarioaren funtzionaltasun kognitiboari ematen zaio garrantzia. Eragin kognitibo positiboak dakartza ekoizpen literarioak osagai kulturalak dituelako. Hortaz, testua eta irakurlearen artean interakzioa bategi, ezagutza kulturalak ere barneratuko lirateke. Hainbestez, Hizkuntzaren eta Literaturaren irakaskuntza bateragarriak direla ulertu behar da (Dolz, Ganon & Mosquera, 2009; López Valero, 2000).

Halaber, nahiz eta, arestian aipatu bezala, Hizkuntza eta Literaturak zein garrantzidun esangura duen azpimarratu, egungo ikusmoldea bestelakoa da. Ikasgaia pertsonaren

garapenarekin errotuta egon arren, Hizkuntza eta Literaturak aurre egin behar dion testuinguru kezagarria dauka. Batetik, alor akademikoan desinteresa duten ikasleriagatik; bestetik, eraginik gabeko metodologia homogeneousak erabiltzeagatik, eta irakasleen konbentzimenduagatik printzipio psikopedagogikoen eta didaktikoen inguruan. Horrekin batera, Literaturaren ospea gainbehera joan da, izan ere, irakurketa testuen aukeraketa desegokiagatik irakurtzeko motibazioa galtzea ekarri du. Baita ere, sormenezko lana zokoratu eta, literaturaren historia zein idazleen bizitza testuingururik gabe ulertzen dira. Gainera, antzerkia data zehatzetarako utzi da ez ohiko jardueretarako. Gertaera horiek guztiek ikasleen desinteresa ekarri dute zeinetan, hizkuntzarekin, irakurketarekin ala idaztearekin bat egiten duten lanabesetan antzeman daitekeen, batez ere, lanketa eta gozamen faltagatik. Kezagarria da sortzen, imajinatzen, atsegin hartzen ez delako (López Valero, 2000).

Aldaketako bidean, Mendoza-ren (2000) aburuz, literaturaren arrakalak betetzeko bai eta honek, gizakiaren jarreran eta pentsamoldean eragiten duenez, irakaskuntza modelo kritikoa planteatzen da. Formakuntza literarioari begira, hartzailea eta sortzailea dira garrantzitsuak. Sortu, birsortu, interpretatu eta baloratzen jakin dezaten pertsonak gaitu behar dira. Hartzaile izatera iristeko, testua ulertzen, interpretatzen eta baloratzen jakin behar da. Hori ahalbidetzeko, testuaren eta hartzailearen arteko interakzioa egon behar du (Dolz, Ganon & Mosquera, 2009; López Valero, 2000).

Horiek horrela, Hizkuntza eta Literaturaren ezaugarriak azalduta eta hauen garrantzia hobetsiz, literatur tailerren nondik norakoak azalduko dira. Batetik, literatur tailerrak zer diren argituko da, ondoren, tailerrek izan duten ibilbidea azaltzeko. Horrez gain, Estatu Batuetan, Latinoamerikan, Frantzian, Italian eta Espainian izan diren aitzindari garrantzitsuenak aipatuko dira bai eta beraien tailer literarioen, pentsamoldearen edota metodoaren aurkezpena egingo da.

3. TAILER LITERARIOAK

Delmiro-k (1999) dioenez, literatur tailerrak edo tailer literarioak istorioak kontatzeko bulkadez hausnartzeko lekuak dira. Birsortzearen oinarrian, tailer literarioetan lan proposamen ezberdinetatik idazki anitz lortzen dituzte, adibide askoren artean, egoera berri bat; pertsonaiak eta horien diskurtso, tonu eta ikuspuntu diferentek; obra konbentzional batetik istorio sortzaileak eta estruktura berriak hitzen orden logikoa aldatuta. Tailer literarioen muina, bereziki, norbanakoaren influentzia edo taldean bada, taldekoen influentzia bilatzen da testuetan. Jomuga berdin batekin eratzen dira non,

idaztearen esperientzietatik abiatuta, irakurtzea, mintzatzea eta eztabaidatzea bilatzen duten. Are gehiago, taldean hitzaren edo testu idatziaren lanketa egiten bada esku hartzailea, konprometitua, ludikoa eta komunitarioa litzatekeenez gero, lanabes demokratikoaren esangura egozten zaio. Hitzaz disfrutatu daitekeen tokia da eta horrek norberaren askatasuna aldarrikatzeko aukera ematen du. (Delmiro Coto, 1999, 2000; Perriconi, 2005; García, 2017).

Tailer literarioen publikoa edonor izan daitekeela aintzat hartuta, bilatzen den hartzailea, batez ere, hezkuntza arautuko kideak eta idatzizko literaturari hurbilpena egitea xedetzat dutenak dira. Hori dela eta, gure tokia den eskolan esperientzia horietaz baliatzea baliogarria da, hizkuntzak dituen esperientziak eta aukerak ustiatzeko. Horiek gora behera, aldaketak eman beharko lirateke tailerrak interesatzen diren hezkuntza arautuan abiarazteko. Tailerrak eskola guztientzat kurrikulumeko parte izan beharko lirateke era jakin batean integratuta eta ez, soilik pribatu edota publiko batzuentzat planteamendu orijinal batekin. Orijinaltasunarekin esan nahi dena da, pertsona zehatz batzuentzat ala zentzagarria izatearen konnotazioa duela. Horrela, etorkizuneko aldaketari begira, lotura profesionala uztartuko litzateke laneratze ahalmen maila altuagoarekin, pertsona guztiei aukera berberak eskainita (Delmiro Coto, 2000; Perriconi, 2005).

Jarraian, Estatu Batuak, Hispanoamerika, Frantzia, Italia eta Espainia lurraldeak aipatuko dira bertatik Literatur Tailerren inguruko aitzindari askok berebiziko aportazioak egin baitzituzten. Literatur tailerrak orobatasunean zer diren ulertzeko garrantzitsua da bidea markatu dutenak aurkeztea. Horiek hizkuntzarekin imajinatzearen, jolastearen eta esperimendatzeko arauak asmatzearen aldeko apustua egin zutenak dira.

Literatur tailerrak egun ulertzen dugun erara, Estatu Batuetan XX. mendeko 50. Hamarkadaren amaieratik hasi eta gero, Hispanoamerikatik eta Europako mendebaldetik hedatu ziren (Delmiro Coto, 2000).

Estatu Batuetan John Gardner aitzindariaren *El arte de la ficción* (1983) eta *Para ser novelista* (1983) obrak garrantzitsu egin dira. Gardner-ek bere *modus operandi*-a argitara ematen du, zorrotasunez eta pasioz idazteko erreminta teoriko-praktikoak alegia. Gardner-entzat badaude teknika batzuk ikasi daitezkeenak: nola eman arreta alderdi estetikoek zein etikoei, errore komunak zelan ekidin ala ebazpen eskasak zuzentzeko erremintak. Horrez gain, eskolan lantzen ohi den baino haratagoko irakurketa egin behar da, hots, kanonen arteko loturak edota obraren osaera eta esanahiak ulertzea baino gehiago da. Eleberrigilearen jarrera hartu behar

da, lortzen diren efektuak bilatu, prozesua behatu edota egoera berean idazleak zer egingo lukeen pentsatu. John Gardner-ek bere praktikak unibertsitateko ikasleekin egiteaz gain, Thaisa Frank-ek eta Dorothy Wall-ek ere beste obra bat idatzi zuten *Cultiva tu talento literario. Encuentra la voz del escritor que llevas dentro* (1994) hartzaile perfil berarentzako. Obra honetako asmoa, gogoia eta bat-batekotasuna dagoen giroan, idazketa *continuum* batekin lantzea da (Delmiro Coto, 1994; 2000).

Aurreko aitzindariak ez bezala, Natalie Goldberg-ek *La escritura, una terapia creativa* (1990), *El gozo de escribir* (1993) eta *El rayo y el trueno. Pasión y oficio de escribir* (2000) idatzi zituen edozein literaturzalerentzat. Hiru liburuak berak koordinatu dituen klaseko egoeren anekdotak, arazoak eta soluzioak dira. Berarentzat idaztea sendagaia da, bakoitzari gertatzen zaionaz informatzea baita. Goldberg-en tailer guztiak hurrengo arauekin hasten dira: eskuko kontrola galtzeko mugimenduan aritu, idatzi nahi duzuna (egokia ala desegokia), argitasunez eta zehaztasunez mintzatu, besteak beste. Konstantziarekin idazteko, egunerokotasunean landu daitezkeen egitekoen zerrenda bat ematen du, esaterako, “Gogoratzen dut...”, edo “Pentsatu zein animalia izango zinatekeen” (Delmiro Coto, 2002).

Latinoamerikan 70. hamarkadatik aurrera hasi ziren indarra hartzen tailer literarioak, nahiz eta 60. harmakadatik sortzen hasi. *Grafein* izenpeko taldeari Mario Tobelem-en eskutik eman zitzaion hasiera 1974an eta koordinatzaile honek *Grafein: teoría y práctica de un taller de escritura* (1981) idatzi zuen. Tobelem-ek tailer literarioetako koordinatzailearen jarrera, taldea iruditerian murgiltzeko ideia jasaz beteriko bidelagun gaitua izatea ez ezik, jolasaz dakien eta hitzaren domeinua ere duen figura finkatu zuen. *Grafein*-eko kide ziren Silvia Adela Kohan-ek eta Ariel Lucas-ek (1991) literatur tailerra, testuaren fabrika, jolasteko ala askatasunerako tokia eta laborategi bezala ulertzen zuten. Asmatu zituzten kontsignak idaztera eramateko formula bezala erabili zituzten eta denetariko kontsignak sortu zituzten. Metodoaren praktika elkarren mendeko hiru fasetan egituratzen da: testuen idazketa, testuen irakurketa eta hauen iritzia. Praktika hauek, denboralizazioa finkatuz taldean egitea gomendagarria da. Modu horretan, partaide guztiek abiapuntu bera izatean eta elementu berdinen lanketa egitean, irakurketaren fasea intereseko suertatzea dakar puntuazio arauak hobetzeko alderditik, eta azken etapan, prozesuaren hausnarketa egiteko ala momentuak behar duen teoria azaltzeko aukera egokia da, eta ez alderantziz (Delmiro Coto, 1994; 2002; García, 2017).

Grafein-en ohikoa den idazlearen figura jakintsu eta autoritate irudiarekin apurto eta koordinatzailearen izaera asmatzen du, hau da, motibazioa sorrarazteko gaitasuna

duen pertsona. Gainera, koordinatzaile izaerari testua ekoizteko mekanismoak apurtzearen ekintza egozten zaio, beste era batera esanda, proposamen berriak gauzatzeko ahalmena eta irakurmena zein gogoeta bideratzeko prestakuntza duen figura hobesten da. Hala, tailerraren funtsean ez dago testu idealizaturik, ondo ezta sakonki idazteko presiorik, baizik eta idazketa literarioaren mekanismoak arakatzea idazketaren prozesua ulertzeko. Beraz, ez du idazketa bakarrik aintzakotzat hartzen baizik eta ikerkuntza teorikoaz ere arduratzen da, prozesuan hartutako erabakien inguruan etengabean galderak eta hausnarketak egitea eskakizun duelako (INTEF, 2019; Rafaela García, 2017).

Frantzia *Oulipo* (*Ouvroir de littérature potentielle*) taldea premisa ludikotik datorren mugimendu abangoardista da idazketa automatizatuan oinarritzen dena. Raymond Queneau fundatzailea eta *Oulipo* taldeko François Le Lionnais aipatzea garrantzitsuak dira, izan ere, Claude Berge, Jean Queval, Georges Perec, Jacques Roubaud, Marce Duchamp edo Italo Calvino osatu zuten. Korrante honek inkontzientean gordetako ideia fluxuaz baliatuta, izaera surrealista hartzen du. Talde honentzat, *contrainte* (presio, biolentzia, herstura, euskailu, hertsadura) kontzeptua ezinbestekoa zen, aurrez ariketaren garapena zailtze aldera arauak markatzen baitzituzten. Bi lanabes egin zituzten: literaturaren historian aitzindariak bilatu eta idazketarako aukera berriak bilatu idazleek nahieran erabiltzeko. *Oulipoko* kideen François Le Lionnais-entzat eta Raymond Queneau-entzat idaztea testu edo pasarteen konbinazioan zetzan, gero berriak produzitzeko. Beraiek testua ehuna balitz bezala ulertzen zuten, aurretik dauden harien korapiloetatik korapilo gehiago egiteko. Halaber, Timbal-Duclaux-entzat sorkuntza ez da harietatik egiten, soilik arrazoi bat bilatzeko erabiltzen da. Berarentzat orijinaltasuna ez dator ideietatik, baina bai ideien konbinaziotik edo egituratik (Delmiro Coto, 2002; Timbal-Duclaux, 1993).

Oulipo eskolan erabilitako metodologiari Raymond Queneau-k *Ejercicios de estilo* liburuarekin (1947) jarraiera eman zion eta esperientzia horiek adierazgarri bihurtu dira. Queneauren obra honek, idazlearen estiloa hobetze aldera, idaztearen arteari buruz hitz egiten du. Horrela, testuak sinpleegi gelditzen direnaren trikimailuarekin, zirriborroak behin eta berriz ordezkatzera eramanez, literatura eta sormena momentuan jasotzeko aukera ematen duen tailer literario bezala ulertu daiteke. Bestalde, Delmiro Coto-k tailer literario hitza erabili arren, *Oulipo* taldea berarentzat, ez ziren mugimendu literario bat ezta eskola teorikoa. *Oulipo* kideek literatura esperimentalak ahalbideratzeko ikerkuntza talde ziren ikuspuntutik definitzen ziren, edo beste modu batera esanda ere, literatura potentzial bezala. Izan ere, forma literario

konkretuak eskaintzen zituzten ondoren, horiekin berriak eraikitzeko (Delmiro Coto, 2002; INTEF, 2019).

Laburbilduta, izendatutako Frantziako iraultzaile hauek idazketa praktika lan eta joko modura hartzea hobesten zuten. Hartzaileari irakurtzearen ekintzarekin gelditu beharrean, bat-batean idazten hastearen proposamena luzarazten zuten. Ildo horretatik, Queneau-ren obrak laurogeita hemeretzi testuek birsorkuntzara, uztarketara eta aldaketara gonbidatzen dute. Ezinbestean, kanon literarioak metatzen dituen piezak hobetu eta berregitea zuten helburu (Delmiro Coto, 2002).

Italian ildo ludiko beretik eta lehenengo aldiz, Gianni Rodari-k (1920-1980) bere proposamenak hezkuntza esparruan txertatzeko aukera eman zuen. 1973. urtean *Gramática de la fantasía* argitaratu zuen eta egintza, istorioak asmatzeko artea bezala ulertuta, hizkuntza eta literaturako irakasleen erreferente bihurtu da. Fantasiaren eta irudimenaren aldarrikapena egiten zuen aldetik, bizitzako errealitatea eta honen gordintasuna gaitzesteko gaitasuna zuen, hots, ikuspuntu fantastikotik kritikatzeko. Rodari-ren antzera Christine Nöstlinger-ek ere, fantasiaren erabilera egiten zuen errealitatea erakusteko (Delmiro Coto, 2002; Etxaniz, 1997).

Gianni Rodari-z aparte, Lorenzo Milani-ren (1923-1967) metodoa, hau baita eskola mailan txertatzeko modeloa izanik, Escuela Barbiana (1954) sortu zen. Lorenzo Milani-k idatzizko hizkuntza irakasteko oinarriean, baztertuta zegoen jendartearentzako metodo bat sortu zuen taldearen izaeraren inportantzia azpimarratuz. Metodo honek zortzi jarraibide ditu: 1. fasea, gaia aukeratzea; 2. fasea, ideiak metatzea; 3. fasea, paperak taldeka biltzea; 4. fasea, aurreko talde bakoitzeko ideiak antolatzea; 5. fasea, aurreko ideia taldeak banatzea; 6. fasea, testuaren barne-batasuna kontrolatzea; 7. fasea, testua soiltzea eta hobetzea; 8. fasea, testua zuzentzea (López Gaseni, 2009).

Espanian 1980. hamarkadan Rincón eta Sanchez-Enciso-ren lantegia sortu zen. Lantegia gelatik kanpo landu daitekeen Batxilergoko literatura ikasgai bezala planteatzen da. Konstruktibismoari jarraituz, ikasgela gauzak egiten diren toki bezala ulertzen da, hots, zerbait konkretua egitea eta esperimontazioa helburu duen orientaziodun klaseak. Era berean, metodo tradizionaletik urrunduz, lan indibidualaz aparte, talde dinamikak ere proposatzen dituzte, taldeko helburuak nahiz helburu pertsonalak ezarriz. Hainbestez, irakaslearen rolaren aldaketa dute eskakizun, ikasleari lehen plano eskainiz giro atsegina sortzeko. Ebaluazio prozesua ikasleen jarreraren eta egindako lanaren errekonozimendu orekatuan datza. Baita ere, literaturaren historiaren eta iruzkinen perspektiba berreraikitzen dute, ikasleen pertsonalitatearekin

elkarreragina izatea eta inguruarekin bizigarria izan daitezen jardunak bilatzen baitituzte. Funtsezko dituzten helburuak kontuan hartuta, hiru hilabetean behin erabiltzea gomendatzen dira ondoko generoak: *El taller de la novela* (1982), *La fábrica del teatro* (1985) eta *El alfar de la poesía* (1985) (Delmiro Coto, 2002; López Gaseni, 2009).

Victor Morenok bere lehen ekarpena 1985. urtean egin zuen eskolan txertatzeko. Bere lanetan, arestian aipatutako korrante eta idazle askoren zertzeladak jarraitzen ditu, besteak beste, *kontsignak*, *Rodari* eta *Oulipo*. Victor Moreno irakurleak egiteko, idaztearen premisa egotearen hipotesitik hasten da, idazten duenak irakurri ohi duelako. Beste zenbait obren artean, *El deseo de leer* (1985) eta *El deseo de escribir* (1994) idatzi zituen. Azken liburu honetan dioenez, letren mundua ezagututa, nor bere buruari idaztea lortu dezake, norbera hobeto ezagututa jardunerako gaitasuna eta autodiziplina handiagoa lortzen baita. Idazle honentzat ekoizpenak deskripzio laburrak, ohi ez bezalako hasierak, orijinaltasuna, suspensea eta amaiera bakana izatearen printzipioak batu behar ditu. Horretaz gain, hainbat abiapuntu argitara ematen ditu, besteak beste, gauzen biran kuriositatea piztekoak: inguruko ohiko gauzei hipotesiak formulatzea, munduari buruz arakatzea eta galderak egitea, eskolaren inguruko kontuak kontatzea, norbanakoaren barne munduaz mintzatzea (Delmiro Coto, 2002; López Gaseni, 2009).

Hurrengo puntu honetan, ezin daiteke aipatzea ahaztu, hizkuntzak, literaturak eta tailer literarioek komunean duten hizkuntza idatzia. Montes-ek (2007) irizten duen modura, irakurketa eta idazketa txanpon bereko bi aldeak dira zeinetan, tailer literarioetako lehengaiak izanik, emaitza ekoizpen idatzia den. Hortaz, idazketa Hizkuntza eta Literaturarekin, tailer literarioarekin bai eta sormenarekin erlazionatuta dagoen trebetasuna dela berretsiz, hurrengo puntuan idazmena zer den esplikatuko da, sormenarekin lotura egiten laguntzeko gero, idazketa sortzaileaz aritzeko (Rafaela, 2017).

4. IDAZKETA SORTZAILEA

Idazteari dagokionez, testu idatzia ekoiztearen eta hori lantzearen prozesua da. Lanketak hartzailearengan, mezuarengan eta mezua azalaratzeko nahi den modua pentsatzea eskatzen du. Idatziari formak eta egokitzapenak eman behar zaizkio idazleak lortu nahi duen mezua helarazteko, esanahi osoa eta zehatza duen elaborazioa lortzea helburu duelako. Anna Camps-ek (1994) esandakoan oinarrituta, lehenik eta behin egoera diskurtsiboa da garrantzitsua, horrek ematen baitio zentzua

idatziari. Gero, testuaren osaketa hiru azpi prozesuen bitartez osatzen da eta batetik besterako jauzia nahi eta behar den bestetan egin behar da (Fons Esteve, 2004):

-Planifikazioan testua prestatzeko ideiak sortu, ideien antolamendua egin eta helburuak finkatu egiten dira.

-Testualizazioak testuaren tramaren eraikuntzari egiten dio aipamena. Prozesu honetan, maila baxuko eta altuko jakintzak martxan jartzen dira. Maila baxukoei dagokienez, hitzak osatu, ekoizpenerako instrumentuen maneia izatea da eta maila altukoak, alderdi lexikoari eta sintaktikoari, eta testuaren kohesioari dagozkionak. Testualizazioaren faktoreen bateratzea egitean, planifikazioan erabakitakoarekin bat egin behar du. Fase honetan dagoen eskakizun mailagatik idazle hasi berria blokeatu egin daiteke, autore askok gainkarga kognitibo bezala izendatu dute non, prozesuaren ahultzea gertatu daitekeen. Gainkarga kognitiboaz gabiltzanean, gauza askoren artean, gramatika, lexikoa eta ortografia kontuan hartu behar direnez eta horren bitartean, mezua eta hartzailea zaindu behar direnez, erabaki asko tartean daudenez, idazteko gogoia galdu ahal dela esan nahi da. Hori gertatzen denean, idazlearen arreta maila baxuetara joateko joera egoten da, deskodetzera edota orriaren antolamendura, eskakizun orokorrak ahaztuz, batez ere, koherentziari buruzkoak (Ibarra, 2009).

-Testuaren eraketan berrikusketa azpi prozesu garrantzitsuena da ekoizpen idatziaren eta ahozkoaren bereizten dituen fasea baita. Idazten denean, nahi diren operazioak aplikatu daitezke: ezabatu, ordezkatu, gehitu eta ordenaz aldatu emaitzarekin asebeteta gelditu arte.

Hori kontuan hartuta, ezin da ahaztu idazten hasi orduko, ikasle guztiak idazteko prozesuaren barruan egotea, giro egokia sortu eta ondo fokalizatu behar dela ikasleak motibatuta sentitu daitezten eta iragazki afektiboa erregulatu dezaten. Ikasleei denbora eman behar zaie orri zuriari aurre egiten ikasi behar dutelako. Horretarako, Rodari-ren (1973) "iradokizun fantastikoak", Samoilovich-en (1979) "joko sortzaileak" eta Grafein-en *kontsignak* erabili daitezke (Delmiro Coto, 1994).

1973. urtean Rodari-k pentsamendu dibergentearekin lotzen zuen sormena eta pentsamendu honena azpian, orijinaltasunaren giltza dago. Sormenak uneoro buruari eragitea dakarkio eta esperientziaren eskemak etengabe apurtzeko gaitasunarekin sormen prozesuak honakoak agerrarazten ditu: etengabe galderak egitea, arazoak aurkitzea nahiz eta gainontzekoek gogobeteko erantzunak bilatu dituzten, bestiak

arrisku egoeran aurkitzen diren egoeran lasai sentitzea; adimen autonomia eta independentea izatea; kodeketa baztertzea eta objektuak zein kontzeptuak ulertzea konformista izan gabe. Arazoa ikuspuntu desberdin batetik ikustea da, ahalmen bat ez ezik, jarrera da, ia jolas bat bailitza (Delmiro Coto, 1994).

Sormenezko erantzunetan, argitasunez nahi dena esateko asmoa dagoenean, hizkuntzaren aberastasuna du exigentziatza. Sormenak alderdi ludiko eta arrazionala barne hartzen ditu eta hori era eraginkorra da edozein arazo motari, teorikoari nahiz praktikoari, erantzun ahalik eta sortzaileena emateko. Horrela, inprobisazioa, jolasa, hausnarketa eta erreduntziak martxan jartzen dira non, ezagutzeekin eta jasotako gaitasunekin integratzen diren (Zaraza, 2006).

Hautzaroan borondate sortzailea duen pertsona hazten da, sortzaile izatea bizidunon oinarrian dagoen garapen prozesua baita. Hori gertatzen da, ezagutza berriak jasotzeko aukera dagoenean. Horregatik, umeei mundua esploratzea jolas bezala ulertzen dute. Pertsona heltzen doan heinean, esperientziaren poderioz epaiketa kritikoak egiteko gaitasuna handituz doa, irudimen librea murriztuz doan era berean. Literaturaren pentsamoldetik, berau lantzen duen ikasgaia dela jakinik, asmamena eta sormena izaera zinezkoenak dira (López Valero, 2000).

Prozedura artistikoa ideiak eta sentimenduak komunikatzeko modua dira. Nahiz eta hezkuntzan artea tradizio bezala existitu, oro har, alor artistikoa kurrikuluetik at egongo balitz bezala tratatzen da, gutxietsiz. Bestalde, pertsona bakoitza bere pertsonalitatearen lanketa, kulturaren hautematea eta identitatearen garapena batez ere, lan intelektualaren lanketaz gain, zentzumen esplorazioa eta adierazpena lantzen diren giroetan trebatzen da. Heziketa artetik bideratzen bada, baloreekin erlazionatu daitezkeen bizipenak dakartza: ikuspegi kritikoa, arteagatik gozatzea, bakoitzak bere ikuspuntua emateko konfiantza izatea, autonomiaren garapena, erabakitze gaitasuna eta jarrera solidarioa. Modu berean, nork bere gain hartzen duen ikaskuntza haratago doa transformatu daitekeelako; ikaskuntza teknikoa, ordea, mugatua da. Rodari-k zioen bezala, funtsa ez da ikasle guztiak idazle edo artista bihurtzea denak libreak izatea baizik. Sormenezko jarrerak normalean modelatuak izaten dira, imitazioa behar dute, adibidez, gorputzeko imitazioa, detaileak eta gauza xumeak. Mekanismo honek, oro har artean erabiltzen dena, idazketarekin baliokidetasuna izan dezake (Zaraza, 2006).

Rodari-ren ustean, hitzekin eta irudimenarekin jolastea ez da errealitatera hurbiltzeko modu bakarra, baina hitzen eta gauzen erabilera egokia dakar, inondik inora denbora

galtzean ez den ikuspuntutik. Autore horrentzat idazketa poztasuna lortzeko modu bat zen eta eskola esparruan gaitasun estetikoak sartu zitekeela azpimarratu zuen, pertsonen garapen osoa lortzen baita. Dena dela, idazketa ekintza sortzaile bat dela ahazten da, irakurketa den bezala. Idazketa, besteak beste, irakurketari elkarrizketa gaitasuna aitortzea da, balio komunekoak, sozialak, banakotasunean sortua. Idazketa munduaren elaborazioa eta irakurritakoaren berregitea da, irakurtzeko modua eta irakurketen edukia barne biltzen dituenak. Beraz, eskolara praktikara eramanda, konformismoaren eta uniformetasunaren kontrako lezioa da. Gainera, frustrazioaren kontrako aliatua da idazketaren ibilbidean zailtasunak agertuko baitira. Egiteko ahalmena erakustea esanguratsua da, ikaskuntza edo albo batera uztearen bitarteko muga baitago. Inguruan ugari diren testuak arrakastaz ulertzeko ekintza garrantzitsua da eta praktikatik abiatuta soilik antzematen edo jasotzen direnak. Irakurketari erantzen zaizkion aktibotasun eta kritikotasun baloreak izango balira bezala ulertzen da, nahiz eta pragmatikoa izan, atsegintasunarekin eta berregitearekin lotuta dago. Horregatik, idaztea ekintza sortzaile bat da, sortzaile izaten erakusten duelako eta sormenarekin aurrera eraman behar delako. Hortaz, idazketa ez da zeinu grafikoaren bitartez idazten den ideien itzultzailea baizik eta, baliabide desberdinekin, besteak beste hitzarekin, aurrera egiten duen ideia da. Horregatik, sormena ez da emaitza soil bat, etengabeko prozesu bat da idazketarekin zein irakurketarekin egiten den bezala. Ekintzak bateratuta zerbait ekoiztea bilatzen du, ideiak formulatuz, jakintzaren konbinazio anitzak eginez: elkarketa edo parekidetasuna; permutazioa edota axolagabetasuna. Beraz, sormenezko idazketa tailerren bitartez eraman daiteke, ikasleek produzitzera eramango dituzten modeloak erakutsita, eta ez errezeptak, motibazioa ekarriko dutenak (Zaraza, 2006).

Ikasleekin idazketa sortzailea aurrera eramateko, alderdi ludikoa, esperimentalak eta estetikoak aitortu behar zaio idazketa sortzaileari. Betekizun horiek izanik, mundu imajinarioa desblokeatzen da eta hori, kontzientziarekin lantzeko ariketak proposatu behar dira, bulkada inkontzientea askatuz eta sortzaileen gaitasuna landuz. Sormenaren lanketa eginez, pentsamendu dibergentearen berezko operazioak aktibatzen dira: prozesu irrazionalak, elkar lotzekoak eta alternatibak topatzea eskakizun dituenak. Idazketa sortzailearekin zerikusia duten ariketekin hizkuntzarekiko sentsibilizazioa eta irudimena garatzen dira, kontzeptuak jasotzeko gaitasunetik, erlazioak sortu eta berriak sortzeko trebetasuna dakar. Era honetako jardunak egiteak erabilera instrumentala baztertzen du, inguru autonomoari jokoak emanez. Gainera, ikuspuntu berrietatik egunerokotasuna behatzeko aukera ematen du, edertasun poetikoa aurkitzeko aukera emanez. Halaber, beste irakurketa batzuk egiteko aukera

ematen du: hitzik gabekoa, letrak, munduaren irakurketa, soinuen eta formen irakurketa. Sormenezko idazmena, idazketaren eta irakurketaren esperientzia estetikoekin lotuta dago. Hitzezkoaren balioa nabarmendu eta ahalbidetzen du idazketa sortzaileak, hots, ahoskeraren hobekuntza eta hitzaren ezaugarri akustikoen gozamina, eta testuak produzitzerakoan barne hartzen diren osagaiak kontuan hartzen dira. Irakurketari ere garrantzi handia ematen dio, idazketa ekoizpenari atxikitzen zaion prozesua bezala. Orokorrean, fikziozko esparruan kokatzen da eta sormena aktibatzeako kontsignak erabiltzen dira, sortzailearen prozesua ahalbideratzeko. Lan taldeko lanabesa izan daiteke, iritziak ezinbestekoak direlako eta erreposoa eta berridazketa egitea eskatzen dute. Gauza horiek guztiak ez ezik, eskolako hizkuntza zurrunaren alternatiba ere izan daiteke, idazketa zentzugabetasunaren eta plazer faltaren aurrean. Idazketa sortzailea aurrera eraman ahal izateko, premiazkoa da ikasleen jarrera parte hartzailea eta motibazio ariketak praktikatzeko. Interesgarria da giro atsegina sortzea, antzokia edo jolasleku bezala ulertu behar baita. Horretarako, irakaslea esperientziaren gidari iritxiduna izango da eta ez, epaile soila. Hemendik aurrera, lantegiak nahi bezalako planteamendua hartu dezake, ikasleen eta irakaslearen norabidea hartuz (Alvarez Rodriguez, 2009).

Laburbilduz, literatur tailerrak eta idazketa sortzaileak idazteko adierazpena hobetzeko erremintak eskaintzen ditu eta ez hori bakarrik, ideia berriak izatera eta ohi bezala ikusten ditugun hitzei beste forma edo erabilera bat emateko parada oparitzen du. Gainera, idazle formatuen obrak ezagututa, egintzak sortzeko erabili izan diren mekanismoak barneratzeko balio dute. Horrez gain, gaiaren oinarrian dagoen idazketa trebetasuna lantzea ere, dibertigarria izan daitekeela erakustaraztea ahalbidetzen du. Irakurzaletasuneko ekintzetan bezala, literatur tailerretan ere jolasa eta taldea erabiltzen dira indibidualismoak irabazten duen jendarte honetan, noranzkoa askatasunerakoan markatuz. Literatura tailerretan zehar amaitutako idazkiek berriak idaztera, jarraiera ematera ala amaigabeko ibilbidera daramate (Lapeña Morón, 2006).

5. HELBURUAK

GRAL honen marko teorikoan azaldu den teoria aintzat hartuta, hurrengo helburuek osotzen dute alde praktikoa:

- Ikasleen aurrezagutzak eta aurreiritziak identifikatzea; horiek negatiboak badira, positibo bihurtzen saiatzea.
- Idazketa sortzailearekiko hurbilketa egitea.
- Gaiari lotutako dinamikak probatzea eta beraien iritziak ezagutzea.

6. ESKU HARTZEA

Arestian aipatutako teoriar oinarrituta, besteak beste, Gianni Rodari-ren eta *Grafein*-en influentziatik errotuta, pare bat saio egin dira idazketa sortzaileari dagozkionak. Berrogeita bost minutuko bi saio aurrera eramateko, informazio mugatua eta zehatza erabili da ariketa desberdinak praktikara eraman ahal izateko.

Parte hartzaileak:

Tailer honetan parte hartu zuten 26 pertsonak Ibaizabal Ikastolako (Durango, Bizkaia) ikasleak izan ziren Haur Hezkuntzako lehenengo mailako formakuntza profesionala ikasten zihardutenak. Lagin honetan parte hartu zutenen adin tartea 18 eta 45 urte bitartekoa da, batxilergotik ala erdi mailako prestakuntza izatetik datozenak.

Plangintza:

Atal praktikoaren metodologian bi saioak egun desberdinetan egin zirenez, jardunaldika, lehen eta bigarren puntuetan desberdinu dira. Lehenengo egunean, idazketa sortzaileari harrera eta sormenari egin zitzaion hurbilpena eta, bigarrean, idazketa sortzaileari. Aurreplanifikazioa izan da ezinbestean, saioak aurrera eramateko bidea markatu duena nahiz eta praktikan, moldaketa batzuk egin diren prozesuan zehar azaltzen joango direnak (*ikusi 11.1 eranskina*).

6.1 LEHENENGO SAIOA

Saio hau hiru azpiatal desberdinetan zatikatu da ariketa bakoitzeko. Lehenengo, aurrezagutzen *hasierako galdetegia* pasa zitzaien. Bigarrenik, gaiari harrera egiteko *¿Qué es la Escritura Creativa?* bideoa jarri zitzaien, azkenik, enkantea ariketa egiteko.

6.1.1 Hasierako galdetegia

Ikasle bakoitzaren esperientzia pertsonalak zeintzuk diren ezagutzeko inkestarako gonbidapena bidali zitzaien, ikastetxeko korreo pertsonaletara, ordenagailuz erantzun zezaten. Bi saio direla kontuan hartuta, intentzioa galdetegi labur eta arin bat egitea zen. Hala, galdekizun ireki bakoitzean bilatzen zen erantzunaren arabera formulatuta osatu zen galdera sorta (*ikusi 11.2 eranskina*).

Inkesta honek, beraz, GRALaren abiapuntua markatzen du ikasleen profila identifikatzeko eta emaitza anitzak zein aberatsak jasotzeko.

6.1.2 Bideoa

Gaian sartzeko, idazketa sortzaileari buruzko bideoa jarri zitzaien. Ezagutzak transmititzea baino, gaiari aurkezpena egiteko eta kontestualizatzeko asmoarekin,

bideo laburra (2 minutu eta 24 segundo) eta zehatza aukeratu zen. Hortaz, ¿*Qué es la Escritura Creativa?* izenburudun bideoa ikusi zuten.

<https://www.youtube.com/watch?v=AlcnFDKdXns>

Garapena:

Bideoa ikusi artean, arretatsu ziruditen; bideoa bukatutakoan, ea dena ulertu zuten galdetu zitzairen. Baiezko erantzuna jaso arren, badaezpada berriz ere, azaletik zer den idazketa sortzailea azaldu zitzairen. Batetik, beraiantzat informazio berria izateagatik eta, bestetik, bideoak ideia dezente denbora murriztean azaltzeagatik. Horregatik, bideoa ikusi ostean, azalpenaren aurretik, funtzioez edota onurez galdetu nienean pixka bat harriduraz harrapatu nituen erantzuna ez zekitelako.

6.1.3 Enkantea

Lehenengo ariketa hau jarrera positiboa sustatzeko, lan taldean aritzeko, sormenez gozatzeko eta momentu atsegina pasatzeko erabili zen, baina batez ere, gaiari hurbilpena egiteko. Baita ere, zuzenean idazketa sortzailean sakon-sakonean sartu beharrean, edukiaren mamira gerturatzen joateko ikuspuntutik jo zen ariketaren planteamendua.

Garapenari dagokionez, alde zehatzeko bosteko taldeak eta bat seikoa egitea erabaki zen arren, azkenean, bosteko taldeak egin ziren ikasleek ez ezik, irakasleak ere parte hartuz. Gelakideok enkante batean apuntatuta geundela azaldu zitzairen eta hurrengo zazpi produktuak ezin hobekak direla sinestarazi behar izan zuten: altxatzen zaituen eserlekua; zulo-tutako aterkia; mugitzen den ohea; iluntasuna ematen duen bonbilla; motorrik ez duen kotxea, kontrako norabidean doan eskailera mekanikoa eta hortzetako eskuila erabiltzera zoazenean zurdak gordetzen dituen objektua.

Ikasleek ariketaren nondik norakoak uler zitzaizkien, ni hasi nintzen, adibide gisara, zergatik aukeratutako produktua bizitzarako onena zen argudiatzen. Talde bakoitzak beraren produktua onena zelakoan berean pentsatu, ideiak jaso eta aurkeztu zuten. Honen amaieran, ikasle bakoitzak gehien konbentzitutako produktuaren alde bozkatu zuten.

Ariketa hau ebaluatzeko erabili diren zazpi adierazleak ondorengoak dira: harridura kutsua egon den, umorea jarri ote dioten, denbora ondo kudeatu duten, motibazioa edo jarrera erakutsi duten, komunikatzeko gaitasuna izan duten, ea ondo argudiatu duten esan beharrekoa, eta zenbat sormenezko argudio eman dituzten (*ikusi 11.3 eranskina*).

Garapena:

Talde bateko kideak trabatuta sentitu zirenez, esleitutako iluntasuna ematen duen bonbila gailuaren pare bat erabilera alternatibo proposatu nizkien beraien trabatze prozesutik irteteko, eta, azkenean, motorrik ez duen kotxea eman nien aukeran. Ariketa egiten ari ziren bitartean, hainbat buelta eman nituen gelatik beraien iradokizunak entzuten eta beraien irudimenetik mugak ezabatzen.

Saioaren amaieran, gailua zein zen eta zergatik bezeroek beharrezkoa zuten azaldu behar zutela planteatzean, beldur aurpegiak jarri zituzten. Halaber, denek parte hartzaile jokatu zuten une oro, eta jendaurrera talde osoa irteteko aukera eman nien. Beraien aurkezpen unean, talde handian elkar entzuten aritu ziren atentzio osoz eta atsegin sentitu zen gelako giroa.

6.2 BIGARREN SAIOA

Bigarren saioan, lehenengoan ez bezala, aurreikusten nuen denboraz justu ibiliko nintzela, horregatik, aurreko saioko irakasleari 15 bat minutu uzteko eskatu nion eta baiezkoa erantzun zidan arren, bost minutu luzatu zen aurreko klasea. Denbora iragaten zihoala, azken momentuko aldaketak egin nituen ordenean. Bigarren saioan, beraz, aurreko egunekoa gogoratu, istorioa sortu, istorioa kontatu, proposamenak plazaratu eta azken galdetegia egin beharreak, proposamenak eman, istorioa sortu, istorioa kontatu eta galdetegia egitea izan zen amaierako erabakia. Eginiko aldaketak 11.1 eranskinetako 1. Taula. Aurreplanifikazioarekin alderatuta antzeman daitezke.

6.2.1 Zenbait proposamen

Delmiro Coto-k (2002) *La escritura creativa en las aulas* liburuan eta López Gaseni-k (2009) *Literatura lantegien hastapenak maisu-maistrentzat* liburuan ezagutara ematen dituzten hainbat alternatiba planteatu ziren haur hezkuntza ikasten dabilentzat baliagarri suertatu ahal zaizkienak.

Ondoren datozen zazpi proposamenak –*binomio fantastikoa, foku aldaketa, hipotesi fantastikoa, ipuinen nahasketa, aldizkarietako titularrak nahastea, eta gero zer?, pertsonaien karakterizazioa*- informazioa azaldu bitartez burutu zen. Bien bitartean, galderak ez ezik, planteatutako ariketa bakoitzaren ebaluazio orria (*ikus 11.4 eranskina*) osatu zuten, hiru irizpideetan oinarrituz: utopikoa, baliagarria eta gustukoa iruditzen zitzairen. Puntuazio sistema batetik laura da, izan ere, 5etik puntuatu behar denean erdiko puntuazioa emateko joera baitaukagu eta komenigarriagoa baita egiazko burubidea jasotzea. Beraz, jarraian zazpi proposamenak agertzen dira:

Binomio fantastikoa: Bi hitz ausaz aukeratu behar dira, beraien artean zentzurik ez dutenak, eta inoiz batera ikusiko ez ditugunak. Ez du balio elkarrekiko antza izateak edo ezaugarri berdinekoak hartzeak. Hoberena esanahi zehatzeko bi izen aukeratzea da eta ez abstraktuak. Hau da, hitzak egunerokotik aterata erlazio bat sortu behar da, zoriz. Haur Hezkuntzako klaseetan erabili dezaten, deigarriagoa izateko objektu edo irudiekin jolastea proposatu zitzaien.

Foku aldaketa: Ipuin tradizional bat edo partaide guztiek ezagutzen duten ipuin bat hartuta, pertsonaia edo objektu baten ikuspuntutik kontatzea da. Adibideak eman zitzaizkien esaterako, *Txanogorritxon* protagonistaren ikuspuntutik kontatu beharrean, otsoaren ikuspuntutik egitea.

Hipotesi fantastikoa: Hipotesiak sortzea da; zer gertatuko litzateke baldin eta?

Ipuinen nahasketa: Rodari-k *Cuentos por teléfono* liburuan egiten duen antzera, ipuinak ikuspuntu berri batetik kontatzea efektu parodikoak bilatuz. Horrela, istorioak nahastu daitezke: ohiko pertsonaien nortasuna aldatuz (otsoa ona eta *Txanogorritxo* gaizkilea izatea), fabula / ipuin ezagun desberdinak nahastea (*Txanogorritxo* eta *Erpurutxo* oihanean elkartzea eta *Loti Ederra* aurkitzea) edota ezaguna den istorio batekin jolastea eta amaiera ostean gertatu daitekeena asmatzea. Ariketa hau hipotesi fantastikoarekin desberdintzeko zailtasun batzuk ikusita, adibide gehiago gehitu ziren. Adibidez, Txanogorritxori beste istorio bat sortu beharrean “Txanoberdetxo” edo “Txanohori” izenekoak erabilia berria sortzea; “Edunezuri”-ren istorioetan zazpi ipotx eduki beharrean gutxiago edo gehiago izatea edota hainbat istorio politikoki zuzenak bihurtzea, J. F. Garner-ek *Cuentos políticamente correctos* (1994) bilduman egiten duen erara.

Aldizkarietako titularrak nahastea: Izenak dioen bezala, aldizkarietako titularrak nahastuta gertaera absurduak dituzten albisteak sortzea. Dena den, haur hezkuntzako ikasleetara doitu, titularrak ez ezik, nahieran, irudiak, hitzak, tituluak erabili daitezke.

Eta gero zer?: Ezaguna den istorio baten amaieratik jarraitzea. Adibide gisa, Hanselek eta Gretelek ea diabetesak jota amaitu zuten edo nola bukatu ote zuten ematen du López Gasenik. Beste burutazio bat, testua osatzen duten hiru estrokturekin jolastea izan daiteke esaterako, hasiera eta garapena ematea eta amaiera asmatzea.

Izen propioa duten pertsonaien karakterizazioa egitea, adibidez, Danátula Zetes e.a. Ariketa honen funtsa, izen propioak, edota desberdinak egiten zaizkigun izenak erabilia, izaera, itxura, funtzio, gertakizun, irudikapen bat egitea da.

Garapena:

Saio honen hasieran, bost minutuko atzerapenarekin, zazpi proposizioak behar baino bizkorrago azaldu ziren argibide gehiegirik eman gabe. Entzuten zuten bitartean, proposamenei hiru irizpideen arabera (utopikoa, baliagarria, gustukoa) nota bat jarri behar zioten. Hala, baten batzuek kontzeptuak ulertzeko zailtasunak izan zituzten.

6.2.2 Irudiekin istorioa

Sormena eta idazmena lantzeko egin zen. Ikasleei ezagutzen ez zuten liburu baten irudiak eman zitzaizkien, letrarik gabe. Erabilitako baliabidea Koldo Izagirrek euskaratutako *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*a Werner Holzwarth-ena (2017) da. Ariketa honetan argi utzi zen helburua ez dela benetako istorioa intuitzea eta kontatzea baizik eta beraien sormenarekin jostatzea.

Garapena:

Idatzi beharreko istorio berria haur hezkuntzara (3-6 urte) bideratuta egoteko helburua alde zurratik finkatuta egon zen arren, denboraz gaizki aritzeagatik eta ondorioz jasotako ikasleen ekoizpenekin, helburua baliogabetuta gelditu da. Hori aintzat hartuta, hasieran antolatutako ebaluatze irizpideek (*ikusi 11.5 eranskina*) izan dituzten aldaketen arrazoiak emaitzetan argituko dira. Ipuina ekoitzi ostean, denen aurrean kontatu zuten.

6.2.3 Amaierako galdetegia

Idazketa sortzaileari buruzko hurbilpena borobiltzeko asmoarekin, berriz ere, 11.2 eranskinetako *hasierako galdetegia* planteatu bezala, korreoz *bidalitako 11.6* eranskinetako *amaierako galdetegia* bete zuten galdera zabal bi eta beste bi itxiek.

Garapena:

Aurrerago errepikatu bezala, denbora zailtasun, astia izan zutenek galdetegia momentuan bertan bete zuten; beste batzuek, ordea, beranduago etxean bete behar izan zuten.

7. EMAITZAK


Emaitzak metodologia ataleko ordena berarekin azalduko dira. Hortaz, eranskinetan ikusi ahal izan diren taulez baliatuta, datu hauek lortu dira:

7.1 Hasierako galdetegia

Lagina guztira 26 ikaslerena da, baina lehenengo saiora 24 bertaratu ziren eta beste biek etxetik bete zuten. Lehenengo ataleko galdera guztiak irekiak dira:

Lehenengo galderan, beraien ikaskuntza ibilbidean Hizkuntzak eta Literatura ikasgaiak zein sentimendu sorrarazten zien galdetzean, emaitzak sentimendu positiboak, erdipurdikoak eta negatiboak multzoetan ezberdindu dira. Hamar pertsonari sentimendu positiboak sorrarazten dizkio; negatiboak beste hamarri, eta sei pertsonari, erdipurdikoak. Positiboen eta negatiboen artean, berdinketa egon da hizkuntza eta literatura ikasgaiarekiko duten sentimenduak aintzat hartuta (*ikusi 1. grafikoa*).

1. Grafikoa. Bizipenak



Sentimendu positiboak dituztenen artean, interesa eta gustukoa izateagatik argudiatu da gehienbat. Erdipurdiko mailakatzea egitea erabaki da, hainbatek hizkuntza eta literatura desberdindu egin dituztelako; literaturarekiko sentimendu negatiboak dituzte; aldiz, hizkuntzarekiko positiboak.

Sentimendu negatiboen artean, horien zergatia, aspergarriak eta astunak direlako da arrazoirik errepikatuena.

Erantzunak osotasunean erakustarazteko, zazpi multzoetan –irakaslearen papera, metodologia, literatura, hizkuntza, ikasgaia osotasunean, hizkuntzen arteko alderaketa eta zein ikaskuntza etapan kokatu diren - desberdindu dira.

Bizipenen xehetasunen taulan ikusi daitekeenez, Batxilergoan eta DBHn fokalizatu dituzte erantzunak, gehiengoak gertuen daukan etapa baita. Sentimendu positiboak dituztenen %38ren artean, horiekiko ikuspegi positiboa izan dute barne motibazioak bultzatuta: bizitzan garrantzitsutzat jotzen dutelako, irakurtzea gustukoa dutelako, interesa edota intriga izateagatik. Sentimendu negatiboa izan dutenen beste %38ren artean, ordea, agian, motibazio intrintsekoaren faltan, kanpo motibazioaren falta izan dute metodologiagatik, gaitegiagatik edota hizkuntzagatik.


1. Taula. Bizipenen xehetasunak

	Positibo	Negatibo
Irakaslearen papera	-Harreman ona	-Gaztelaniakoak dudak argitzeko interes falta. -Gorrotoa
	-Irakaslearen arabera gustukoa izango da edo ez	
Metodologia	-Aukeratutako liburua gustukoa -Sentimendu ona -Dinamikoak	-Ez eraginkorra -Desegokia -Ikasteko kuriositatea eta gogoa sustatzean gabezia -Errepikakorra -Aspergarria, astuna, "txapa" -Mugatua -Azterketari begira bakarrik -Irakurritako liburuak irakasleak aukeratutakoa. -Irakurtzeko liburu gaxak -Liburuak ez dira gustukoak izan -Idazleez ikasi beharra
Literatura	-Oroitzapen positiboa	-Aspergarriak -Zentzugabeak -Ez esanguratsuak -Burus ikasi beharra azterketarako soilik -Ez disfrutatu, ulertezina -Aspergarria euskal edo erdarazko literaturako idazleei buruz ikasi beharra
Hizkuntza	-Garrantzitsuak bizitzarako -Gustuko	
Ikasgaia osotasunean	-Gustukoa, interesa, poztasuna, gogoa, eroso, gustukoa, ondo, intriga. -Kultur maila handitu -Sormena landu	-Aspertu, astuna
Hizkuntzen arteko alderaketa	-Ingelesean eta euskaran hobeto, gaztelanian baino -Euskarako klaseetan ongi eta ingelesean ahaleginak jarri, baina ongi ere bai. -Gaztelania eta euskaran ongi -Euskaran gaztelanian baino erosoago -Euskara bakarrik gustuko, gaztelanian gaizki	
Zein ikaskuntza etapan kokatu diren	Batxilergoan: bi pertsona	DBH-n: pertsona bakarra

Bigarren galderan, sormenezko idazketaren lanketaz itauntzean, 2. grafikoan agertzen den bezala, ezezkoa 10 pertsonen eta baiezkoa 16 pertsonen adierazi dute. Zein frekuentziarekin zehaztean, orokorrean, oso gutxitan erantzun da: urtean behin, hiru hilabetean behin, noizbehinka, batzuetan, aurtengo goi mailan, bizian behin. Zehaztu dutenen artean, gehiengoak txikitan edo Lehen Hezkuntzan landu duela adierazi du.


Zer landu zutenaren inguruan zehaztu dutenek eskutitzak, poesia, bertsoak, hitz jokoak, ipuinak landu eta ipuinak sortu izan dituztela esan dute. Ipuinak sortzearen kontzeptua sarritan errepikatu da. Baita ere, 26tik lau izan dira sentimenduez hitz egin dutenak eta denek positibotzat jotzen dituzte landutako ariketak.

2. Grafikoa. Landu duzue inoiz?



Hirugarrenez, sormena nola landuko luketen galderak honako emaitzak izan ditu (18 aipamen): jolasak, istorioak sortu, marrazketa librea, ipuinak, antzerkia, musika, abestiak, firmak sortu eta ikusi, irudiak, adierazpen plastikoa, eskulanak, argibiderik bako ariketak, maketak, piezak, esperimenduak, plastilina, proiektuak eta natura. 3. grafikoan agertzen diren proposamenez aparte, egoerak planteatzea eta situazio horri irtenbide bat baino gehiago bilatzea ere gehitu da.

3. Grafikoa. Sormena lantzeko proposamenak



Emaizta guztiak artearekin erlazionaturiko arlo ezberdinak dira zeinak, emaitzek sormenarekiko zein idazmenarekiko aurrezagutzak badituztela berresten duten. “Istorioak sortu” eta “ipuinak” dira lehenengo lau proposizioen errepikatuenen artean daudenak. Erlazionatuta dauden “istorioak sortu” eta “ipuinak” kontzeptuok ez dira bateratu beraiek emandako erantzunak errespetatzearren, baina, bestela ere, sormena egin diren ariketa motekin lotzen dute. Baita ere, *hasierako galdetegiko* bigarren galderan, idazketa sortzailetik zer landu zuten erantzunen artean, ipuinak sortzea hainbatetan agertu da.


Laugarren galdera gaiarekiko interes mailari buruzkoa izan zen. 4. grafikoan ikusi daitekeen bezala, maila altua dutenak 22 ikasle dira eta, erdipurdikoa zein baxua dutenak, 2 pertsona. Interesa dutenen artean, gehiengoak idazketa sortzailea garrantzitsua dela dio eta landu behar den gauza delako egiten dute bat. Sormenezko idazketa lantzeko aukera gutxi ematen dela eta ezinbestekoa dela irizten dute, dena eginda ematen delako. Sormen gutxi dutela uste dute 4k eta onuragarria izango zaiela. Bestalde, beraien burua sormen handiko pertsonak jotzen duten 2 ikaslek, gaia interesgarria iruditzeaz gain, batek, ideiak orrian plazaratzea kostatzen zaiola argudiatzen du. Badaude beste 2 pertsona, gaiaren inguruan ezjakintasuna izateagatik, jakin-mina dutenak.

Interes maila erdia dutenen artean, bat gaiaren nondik norakoak ez jakiteagatik sailkatzen da multzo honetan eta bestea, ordea, bi kontzeptuak bateratu gabe, sormenarekiko baikor agertzen delako eta idaztearekiko ezkor.

Interes maila baxua dutenak interes faltagatik eta sormen gutxi dutelako azaltzen dira multzo honetan.

Beraien ibilbide profesionalean idazmena landuko ez duten arren, interesarekin agertu dira, onuragarria delakoan, gaiarekiko %84ak maila altua duela azalerratu baitu.

4. Grafikoa. Interes maila



Lau galdera hauek izan dira GRAL honen abiapuntua, ondoren, hurrengo hiru ariketak -enkantea, zenbait proposamen eta irudiekin istorioa- bideratzen lagundu izan dutenak. Ariketen gaineko emaitzak datozen orrialdetan azalduko dira.

7.2 Enkantea

Metodologia atalean aurreratu bezala, enkante bat simulatu zen sormen atalari eusteko. Hainbat objektu bizitzarako ezinbestean beharrezkoak zirela konbentzitzeko ahalegina modu objektiboan neurtuta, laginari esker jasotako informazioa partekatuko da.

2. Taula: Taldearen ebaluazio kualitatiboa (I): *enkantea*

*(4)Oso ondo, (3) Ondo, (2) Nahiko, 1 (Gutxi)				
Harridura egon da?	BAI (5)		EZ (0)	
Umore kutsua egon da?	BAI (5)		EZ (0)	
Denbora kudeatu da?	BAI (5)		EZ (0)	
Motibazioa/Jarrera	4=(5)	3	2	1
	Denek parte hartzaile jokatu dute.	Erdiak baino gehiagok parte hartzaile jokatu du.	Erdiak baino gutxiagok ez du motibaziorik erakutsi.	Ez dute gogorik erakutsi.
Komunikatzeko gaitasuna	4=(1)	3=(4)	2	1
	Argudio argiak eta onak eman dira. Puntu gehien lortu ditu. Talde handia konbentzitu dute.	Ondo argudiatu da, baina ez dira puntu gehien lortu.	Konbentzitzeko saiakera egon den arren, argudio kaxkarrak izan dira eta ez da punturik lortu.	Argudioak kaxkar xamar azaldu dira eta ez da punturik lortu.
Sormena	4=(2)	3=(3)	2	1
	5 argudio edo gehiago jaso dira.	4 argudio jaso dira.	3 argudio jaso dira.	Bi argudio besterik ez.

-Harriduran, umorean, denboraren kudeaketan eta motibazioan “BAI” jarri zitzaien.

-Komunikatzeko gaitasunari dagokionez, oso ondo talde bati baloratu zaio eta ondo lau talderi. Ohar gisa, hasiera batean, taldeko bakar batek aurkeztea zegoen erabakita, baina, azkenean, talde osoak batera azaldu zuen. Beraz, talde barruan, pertsonen gaitasun komunikatiboa desberdina denez, malgutasunez baloratu ziren aurkezpenak.

-Sormenari dagokionez, oso ondo bi talde eta ondo hiru taldek lortu zuten.

Emaitzak ikusita, talde osoaren jarrera azpimarratzen da eta *enkantea* ariketak arrakasta izan zuela.

7.3 Zenbait proposamen

Delmiro Coto-ren (2002) eta López Gaseni-ren (2009) obrei esker, ikasleei zenbait proposamen aurkeztu zitzaizkien beraien iritzia jasotzeko.

Beheko taula interpretatze aldera, 5. zutabea ez da utopiko adierazlea aintzat hartu. Honen arrazoia, baliagarritasunak eta gustukoak emaitza berarekin esanahi berdina hartzen dutelako da; eta utopikoak, aldiz, esangura desberdina hartzen duelako.

3. Taula. Zenbait proposamen

	UTOPIKOA 4=Erabat utopikoa. 3= Utopikoa 2= Utopia gutxikoa 1= Ez da ezer utopikoa	BALIAGARRIA 4=Erabat baliagarria. 3= Baliagarria 2= Baliagarritasun gutxi 1= Ez da ezer baliagarria	GUSTUKOA 4=Oso gustukoa. 3=Gustukoa 2=Ez oso gustukoa 1= Ez zait ezer gustatzen	Baliagarria eta gustukoaren batz bestekoa guztira
Binomio fantastikoa	2,04	3,16	3	3,08
Foku aldaketa	1,76	3,4	3,4	3,4
Hipotesi fantastikoa	2,12	3,08	2,92	3
Ipuinen nahasketa	1,92	3,04	3,28	3,16
Titularrak	1,84	2,8	2,68	2,74
Eta gero zer?	2,08	3,36	3,56	3,46
Karakterizazioa	2,08	3,36	3,28	3,32
Batz bestekoa guztira	1,98	3,17	3,16	
EMAITZA	2	3	3	
*Emaitzak honela interpretatu dira:				
0,5≤1,4=1	Ez da utopikoa	Ez da baliagarria	Ez zait gustatzen	
1,5≤2,4=2	Utopia gutxikoa	Baliagarritasun gutxi	Ez oso gustukoa	
2,5≤3,4=3	Utopikoa	Baliagarria	Gustukoa	
3,5≤4=4	Erabat utopikoa	Erabat baliagarria	Oso gustukoa	

Utopiko multzoak, “utopia gutxiko” emaitza lortu duelarik, multzoko utopikoena *hipotesi fantastikoa* (2,12) da eta utopia gutxien duena *foku aldaketa* (1,76). Gainera, utopikoa da iritzi berdintsuena izan duen adierazlea, izan ere, emaitza txikienetik handienara desberdintasun tarte txikiena dauka.

Baliagarritasunari begira, ikasleek baliagarri ikusten dituzte proposizioak. Puntuazio altuena, *foku aldaketak* (3,4) dauka eta baxuena *aldizkarietako titularrak nahastearenak* (2,8). Batetik besterako tartean erreparatuta, baliagarritasunean iritzi kontrajarriagoak izan dituzte, utopikoan baino ia bikoitza gehiago.

Gustuen arabera, gustuko ariketak planteatu zaizkie. Nahiago dutena *eta gero zer?* (3,56) ariketa da eta gutxien *titularrak nahastearena* (2,68). Adierazle hau, desberdintasun tarteari dagokionez, datu kontrajarri gehien biltzen den sailkapena da.

Bataz bestekoaren datuak behatuta, baliagarritasuna eta gustuak ikusita *eta gero zer?* (3,46) da arrakasta handiena izan duena; gutxien, ordea, titularrak nahastearen ariketak (2,74) izan du.

Emaitzen arabera, proposamen guztiak egingarriak eta baliagarriak dira, bai eta gustukoak dituzte etorkizunean Haur Hezkuntzako ikasleekin egiteko.

7.4 Irudiekin istorioa

*Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*a istorioarekin jolastu den ariketa da. Denboraren trinkotasunagatik, talde batek ez zuen bukatzeko astirik izan eta beste bati, bukatu bai, baina idaztea falta zitzaion. Beraz, talde batzuek bukatuta izan ez arren, kontatzen has zitezela erabaki nuen. Tarte hori aprobetxatu nahian, istorio orijinala kontatzen hasi nintzen. Momentu horretan, beraien emozioak ikusi ziren istorio orijinala ezagutzeko gogoia zeukatelako, izan ere, bakoitzak istorioa bere egin zuenez, kontraste handiagoa ala txikiagoa zegoelako. Une honetatik aurrera denbora gainera zetorrela ikusita, gelditzen ziren bi taldeetatik animatu zen taldeak bakarrik kontatu ahal izan zuen. 4. Taula. Taldearen ebaluazio kualitatiboa (I): irudiekin istorioa emaitzak erakusten ditu:

4. Taula. Taldearen ebaluazio kualitatiboa (II): irudiekin istorioa

*(4)Oso ondo, (3) Ondo, (2) Nahiko, 1 (Gutxi)				
Harridura egon da?	BAI(5)		EZ(0)	
*Haur Hezkuntzarako egokia da?	BAI		EZ	
Denbora kudeatu da?	BAI(4)		EZ(1)	
Titulua, hasiera, garapena eta bukaera dago?	BAI(4)		EZ(1)	
Errealitatekin aldatu da?	BAI(5)		EZ(0)	
Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da? (Koherentzia)	BAI(4)		EZ(1)	
Testuaren ulergarritasuna.	4=(2)	3=(2)	2=(1)	1=(0)
	Testu argia, zehatza eta ulergarria bere osotasunean.	Testu ulergarria, baina planteamendua hobetu daiteke.	Argitasun falta izanik ere, istorioa ondorioztatu daiteke.	Ez da ulertzen. Argitasun edo zehaztasun falta.
Testuko hizkuntzaren zuzentasuna	4	3=(1)	2=(2)	1=(2)
	Ez dago akatsik.	Akats bi gehienez.	Hiru akats gehienez.	Lau akats edo gehiago.
Motibazioa/Jarrera	4=(3)	3=(2)	2=(0)	1=(0)
	Denek parte hartzaile jokatu dute eta lana aurrera eraman dute.	Gehienak motibatuta egon dira eta lana aurrera eraman da.	Erdia baino gutxiago egon dira motibatuta eta lana aurrera eraman da.	Ez dute motibaziorik izan eta ez dute ariketa egin.
*Komunikatzeko gaitasuna	4	3	2	1
	Irakasle paperean sartu da eta entzuleen arreta lortu du.	Nahiz eta irakasle paperean sartu ez den, entzuleen arreta lortu du.	Irakasle paperean ez da sartu, baina irakasle batzuen entzuteko interesa ikusi da.	Ez da irakasle paperean sartu eta ez da entzuleen arreta lortu.
(*) Bi irizpide hauek baliogabetuta gelditu dira.				

-Harridura egon ote den baloratzean, denei “BAI” ebaluatu zaie. Dena den, kontuan hartu behar da batzuek istorioa ezaguna zutela eta, kasu horretan, zaila dela beste ikuspegi batetik istorioa asmatzea. Aldaketa hori ez zegoen aurreikusita hasierako plangintzan.

-Haur Hezkuntzara bideratuta dagoen ala ez ebaluatzean, baliogabetuta gelditzen da ez baita helburu hori mantendu. Gauzak horrela, istorio bakar bat ere ez da Haur Hezkuntzarako egokia.

-Denbora kudeatu den ala ez, hogeit hamar minuturen buruan egin ote den ala ez baloratu beharrean, istorioa bukatuta dagoenaren arabera baloratu da. Talde bakarra gelditu zenez istorioa bukatu gabe, istorioaren egitura (titulua, hasiera, garapena, amaiera) “EZ” bezala kalifikatu da. Hainbestez, bostetik lauk irizpide horiek bete dituzte.

-Errealitatetik aldendu diren ebaluazio atal honetan, azken momentuko gertaera suertatu zen. Aldez aurretik, istorioa ezagutzen ote zuten edo gelan inoiz irakurri zuten galdetu nien batzuei. Istorioaren jarduera azaltzean ohartu nintzen baten batzuek ezagutzen zutela istorioa. Beraz, ikasle batzuek esfortzu handiagoa egin zuten, kontsideratu da irudiek transmititzen duten mezutik aldentzen saiatu direla talde guztiak.

-Testuaren ulergarritasunari dagokionez, bi istorio dira ulergarriak; beste bi ulergarriak, baina planteamendua ez da egokia eta batek, argitasun falta dauka.

-Hizkuntzaren zuzentasunaz, oro har, puntuazio arauak eta denbora aldaketak ez dira zaindu. Horrez gain, zenbaitetan ahozko komunikazioaren eta idatzizkoaren arteko nahasketa agertu da. Horiek horrela, “ondo” talde batek, “nahiko” bi taldek eta “gutxi” talde bakar batek emaitzak lortu dira.

-Komunikatzeko gaitasuna ere, baliogabetuta gelditzen da. Batetik, istorioak Haur Hezkuntzara bideratuak ez direlako, eta hainbestez, ezin daiteke komunikatzeko gaitasuna ondo ebaluatu dagokion hartzaileari, garrantzitsua izan zitekeen puntua, ez bazaio mezua helarazten. Bestetik, talde osoaren artean kontatu zutenek, batzuen saiakera maila desberdina da. Amaitzeko, denbora faltagatik ez zuten talde guztiek beraien istorioa kontatu.

-Motibazioaz esateko, guztiek erakutsi zuten ariketa aurrera arrakastaz eramateko jarrera. Horregatik, hiru talderi “oso ondo” eta bi talderi “ondo” jarri zaie.

Honenbestez, nabaria da beraien istorioetan idatzizko kalitate eza, batzuk landuxeagoak eta beste batzuk, arin batean uneko irudimenarekin idatziak, idazmena gutxi zainduta. Hortaz, denboraren arrazoia albo batera utzita, hizkuntza idatziaren gaineko alderdi nagusiak –koherentzia, ulergarritasuna, zuzentasuna- ez dira guztiz errespetatu ezta zaindu. Bestalde, ahalegina egin zutela ikus daiteke erakutsi zuten

gogoarekin eta batzuek, esfortzu bikoitzarekin, hots, irudiek eramaten duten intuizioan jausten saihesteagatik.


Laburbilduz, *Irudiekin istorioa* ariketa ez zen hasierako helburuarekin osotasunean errespetatu nahiz eta, bi saioetatik, idazketa sortzailearekiko ariketarik fidelena izan.

7.5 Amaierako galdetegia

Esku hartze horrekin bukatzeko, amaierako galdetegiaren emaitzak azalduko dira. Lehenengo bi galderak irekiak dira eta, hirugarren eta laugarren galderak itxiak.

Zailtasunei buruzko lehenengo galderan, 14k ez dute inolako oztoporik antzeman bi saioetan. Zailtasunak izan dituzten 3k nahiko erantzun antzekoa eman dute, bigarren saioa teoria konplikatuetatik edo terminoak ez ulertzeagatik. Batek adierazita, istorioa kontatzerakoan, zaila egin zaio egoera serio hartzea; beste batek, ordea, ezaguna zitzaien liburuari beste testuinguru bat ematea (*ikusi 5. grafikoa*).


5. Grafikoa. Zailtasunak



Blokeoan sormenari erreferentzia egindakoen artean: ikaslearen sormen faltagatik edo sormena gutxi praktikatzegatik adierazi da 3 aldiz. Erantzun da ere: “gelditu eta pentsatzen hastea” edota “hasieran blokeo puntu bat”.

Bigarrenean, hizkuntza eta literaturan horrelako ariketak egitea gustatuko balitzaien izeneko galderan, erantzun bat zalantzati agertu ezik, aho batez erantzun dute baietz, 23 orotara. Beraien hitzetan, hizkuntza edo literatura ikasgaiak horrela egingo balira, dibertigarriagoak, esanguratsuagoak, dinamikoak, interesgarriagoak, kreatiboagoak, ludikoak, atseginak, parte hartzaileagoak eta gustukoak izango liriteke. Batek baietz erantzun arren, “egunaren arabera” arrazoitu du. Zergati horietaz gain, errealitatetik ateratzeko erraztasuna hartzeagatik eta sormena lantzen delako ere erantzun da, “burua astindu behar baita eta amaitzean, asetuta sentiarazten duelako” (*ikusi 6. grafikoa*).


6. Grafikoa. Gustatuko litzaizuke halako ariketak egitea?



%96ek denboran atzera egingo balute, planteatutako ariketen modukoak egitea gustatuko litzaieke. Hori dela eta, etorkizuneko maisu maistrek metodologia aktiboa goستن dute. Zerbait ikasi ote duten galdetzean, 20 pertsonak baiezkoa erantzun dute ludikotasunaren presentziaz nabaritu izan duten itaundu zaien modura. Garrantzitsua da azken puntu hau ez bakarrik gaiari lotuta doalako baizik eta, oro har ere, edozein ikasgaietan umorearen presentzia egotea ezinbestekoa delako.


Hirugarren galderan, interesaren gainean, azpiko 7. grafikoan ikusi daitekeenez, maila baxuagoa batek, hasieran bezalakoa 3k eta 20k maila altuagoa dutela deritzote. Emaitzen portzentajeak aterata, %16.67ari ez dio gauza handirako balio izan jardunaldiak eta, ostera, %83.33ak zerbait ikasi duela erantzun du.

7. Grafikoa. Maila altuagoa duzula esango zenuke?



Laugarrenez, ludikotasuna nabaria izan den galderaren aurrean, batek ezezko erantzuna eman du %4 izanik, erdipurdi, bik %13 lortuta eta hogeik baiezkoa erantzun dute %83an. Partaideen %17ak ez du ludikotasun nahikoa sentitu eta beste aldean, aldiz, %83an ludikotasunaren alde egin dute (ikusi 8. grafikoa).

8. Grafikoa. Ludikotasuna nabaritu duzu?



Orain arte aurkeztu diren emaitzek –hasierako galdetegia, enkantea, zenbait proposamen, irudiekin istorioa, amaierako galdetegia- bide emango dute horien interpretazioak azaltzeko.

8. ONDORIOAK

Justifikazioan azaldu bezala, GRAL honen helburua idazketa sortzaileari hurbilpena egitea izan da. Batez ere, etorkizuneko hezitzaileei konturarazteko zein garrantzitsua den modu ludikoan hizkuntzarekin zein sormenarekin esperimentatzea.

Hasierako galdetegiko emaitzetan, parte hartzaileen aurreiritziak Hizkuntza eta Literaturarekiko gazi gozoak izan arren eta idazketa sortzaileaz ezagutza gutxi eduki, sormena lantzeko proposamenen erantzunek (jolasak, istorioak sortu, ipuinak) bete-betean egin zuten bat GRAL honen planteamenduarekin. Hortaz, haien aurrezagutzetara doitutako programazioa ondo egin zela esan daiteke.

Enkantea eta irudiekin istorioa bi ariketen emaitzak ikusita, parte hartzaileek harridura, umorea, motibazioa eta asmamena izan zuten. Horiek horrela, gaiari hurbilpena egiteko jarrera ezin hobea erakutsi zuten eta, ikaskuntza emateaz gain, sormenak duen ludikotasunari lekua zabalduz, ariketek jarrera positiboa izatera eramaten dutela jabetu dira.

Zenbait proposamen jardueraren emaitzetan, partaideek baliagarriak, gustukoak eta utopia gutxiko ikusten dituzte aurkeztutako ariketak. Informazio hori, beraz, baloratzekoa da, batetik, haur hezkuntzan ez delako idazketa lantzen eta, bestetik, ikasle hauek 0-2 urte bitarteko tutoreak eta 3-6 urte bitartera arte laguntzaileak izan daitezkeelako. Hori jakinda, aurkeztutako ariketa guztiek izan dituzte emaitza onak.

Amaierako galdetegiaren datuen arabera, sormenaren erronkari aurre hartuta, egindako ala proposatutako hiru ariketak (enkantea, irudiekin istorioa, zenbait proposamen) egitea gustatuko litzaieke parte-hartzaileei ikaskuntza denboran atzera egin ahalko balute. Baita ere, bi saioekin, zerbait ikasi dutela eta ludikotasuna egon dela ondorioztatzen da. Beraz, López Valero-k (2000) nagusitzen goazen heinean sormena galtzen doala esaten duen arren, helduekin idazketa sortzailea lantzerik badagoela azpimarratu nahi nuke. Gainera, hasiera batean, gaiarekiko interes altua agerrarazi zuten eta bukaeran, konturatu dira, polita, ludikoa eta jostagarria ere badela.

Oro har, jardunaldiaren emaitza pozgarria da, batetik, idazketa sortzailea ezagutzeko aukera eman zaielako eta, bestetik, adin guztietan lantzeko ariketak direla erakusten delako. Etorkizunari begira espero da zenbait ariketez akordatzea eta praktikara eramatera ausartzea, ondorengoek, haien ikasleek ere, esperientziak gogoangarri izateko.

9. MUGAK ETA HOBEKUNTZAK

Lehenengo saioko denboralizazioari dagokionez, aurreplanifikazioa ondo ezarrita egoteak asko lagundu ninduen klasearen erritmoari egokitzen. Bigarren saioan, ordea, nahiz eta kontziente izan denboraz justu xamar ibili behar nintzela, batzuetan, zaila da gela batean egiteko osotasunez irudikatzen duzuna murriztea. Sarritan, denbora urrian informazio apurra kalitatezkoa bada ere, kantitatearen beldurra izaten da. Beraz, GRAL honek ematen du aditzera ez dagoela gehiegizko informazioaren beharrik, beti dagoelako zer ikasi.

Bigarren saioko istorioa sortzeko ariketari dagokionez, aldeztatik gelakide batzuei *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoaren* istorioa ezagutzen ote zuten galdetu nien eta beraien erantzuna ezezkoa izan zen. Istorioaren dinamika azaldu nienean, une horretantxe, ohartu nintzen zenbaitek ipuina ezagutzen zutela. Hortaz, istorioa ezagutu zutenek harridura edo sormen lan bikoitza egin zuten, zaila baita ezaguna den istorioari eraldaketa egitea.

Hobekuntzei begira, hortaz, jardunaldia luzatzea izango litzateke gakoa. Denbora gehiagorekin, gelako erritmoa lasaiagoa izateaz aparte, praktika gehiago egingo lirateke ganoraz eta esperimendatzeko aukera izango lukete partaideek, estrategia edo ideia berriak hobeto barneratuz.

Bukatzeko, GRALaren prestakuntzak gaitasun akademikoak ez ezik, baliagarria izan zait, batez ere, irakasle paperean seguruago eta konfiantza gehiagorekin sentiarazi bainaute. Gainera, programazioa nire erara planteatu dudanez, gustura moldatu ditut proposatutako ariketak irakaspena ahalik eta modu errazenean eta dibertigarrienean egiteko.

10. BIBLIOGRAFIA

-ALONSO AMEZUA, I. *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboen argitara*. Labayru Ikastegia Amorebieta-Etxanoko Udala.

-ALVAREZ RODRÍGUEZ, M.I. (2009). Escritura creativa. Aplicación de las técnicas de Gianni Rodari. *Educere*, 13(44),83-87. ISSN: 1316-4910. Eskuragarri hemen: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=356/35614571010>

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-DELMIRO COTO, B. (1994). Los talleres literarios como alternativa didáctica. *SIGNOS*, 11, 30-45. Eskuragarri hemen:

<http://www.revista-abaco.com/abacodigital/taller/introduccion.htm>

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-DELMIRO COTO, B. (2002). *La escritura creativa en las aulas*. Bartzelona: Graó.

-DOLZ, J., GANON, R., & MOSQUERA, S. (2009). *La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción* [Ebook]. Suiza: Ginebrako Unibertsitatea. Eskuragarri hemen:

https://www.researchgate.net/publication/268980152_La_didactica_de_las_lenguas_u_na_disciplina_en_proceso_de_construccion/link/5d1a1408458515c11c07beb8/download

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-ETXANIZ ERLE, X. (1997). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* (Lehenengo edizioa). Iruña: Pamiela.

-FONS ESTEVE, M. (2004). *Leer y escribir para vivir*. Bartzelona: Graó.

-FUNDACIÓN ESCRITURA(S), FERNÁNDEZ ROZAS, G., FERRARI NIETO, E., ÁLVAREZ LODEIRO, J., & MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL – INTEF. (2019). Un poco de historia de los talleres de escritura | Bloque 2. Anatomía de un taller de escritura. Eskuragarri hemen: http://formacion.intef.es/pluginfile.php/246850/mod_resource/content/2/Archivo%20zip/un_poco_de_historia_de_los_talleres_de_escritura.html

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-GARCIA, L.R.; El oficio del taller literario como dispositivo de escritura creativa; Universidad Nacional de La Plata. Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación; El Toldo de Astier; 8; 15; 10-2017; 71-85. Eskuragarri hemen: <http://hdl.handle.net/11336/55924>

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-IBARRA, I. (2009). Kaligrafia eraikitzeo sekuentzia didaktikoak (DVDa). EHU-ko sare argitalpenak. Eskuragarri hemen:

https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/kaligrafia-pentsatuz/eginez/01_dvd_aurkezpena.pdf

[Kontsulta eguna: 2020/07/15].

-IMAGÍNATE ESCRITURA CREATIVA. (2016). *¿Qué es la Escritura Creativa?*. [Bideo artxiboa]. Youtube. Eskuragarri hemen:

<https://www.youtube.com/watch?v=AlcnFDKdXns&t=2s>

[Kontsulta eguna: 2020/09/19].

-LÓPEZ GASENI, M. (2009). *Literatura-lantegien hastapenak maisu-maistrentzat*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Eskuragarri hemen:

<https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/literatura-lantegiak>

[Kontsulta eguna: 2020/09/19].

-LAPEÑA MORÓN, C. (2006). *Programas de talleres literarios y de escritura creativa en bibliotecas públicas*. Madrid: Kultura Ministerioa, argitalpen, informazio eta dokumentazio Zuzendariorde Nagusia. Eskuragarri hemen:

http://travesia.mcu.es/portahb/jspui/bitstream/10421/650/1/com_118.pdf

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-MENDOZA FILLOLA, A., LÓPEZ VALERO, A., TEJERINA LOBO, I., GARCÍA PADRINO, J., & LLORENS GARCÍA, R. (2000). *Literatura infantil en la escuela* [Ebook]. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, 2000. Eskuragarri hemen:

<http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmccv4f6>

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-PERRICONI, G. *Una alternativa de aprendizaje: los talleres literarios*. Lectura y vida: 25 años año 18, no.2. Buenos Aires: Asociación Internacional de Lectura. Lectura y Vida: 2005. Eskuragarri hemen:

http://www.lecturayvida.fahce.unlp.edu.ar/numeros/a8n1/08_01_Perriconi.pdf

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-TIMBAL-DUCLAUX, L. (1993). *Escritura creativa*. Madrid: Edaf. Eskuragarri hemen:

<https://uacmtalleresliterarios.files.wordpress.com/2011/04/escritura-creativa-introduccion-3b3n-0.pdf>

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

-ZARAZA, F. (2006). *Un Concurso de Cuentos". Onza tigre y leon*. [On-line], 21-24, eskuragarri hemen:

<https://fundaupel.files.wordpress.com/2015/05/nc3a2c2b0-27.pdf>

[Kontsulta eguna: 2020/07/07].

11. ERANSKINAK

11.1 ERANSKINA

1. Taula. Aurreplanifikazioa

ZER	NOLA	ZERTARAKO	DENBORA	ERREKURTSOAK	TALDEAREN KUDEAKETA
1. SAIOA (55 min)					
Aurkezpena			5 min		
Aurrezagutzak	Ideia irekien bitartez egingo da.	Ikasleen aurreiritziak eta ezagutza maila zein den jakiteko.	15 min	Galdetegia Ordenagailuak	Banaka
Bideoa	Bideoko informazioa entzunez eta ikusiz.	Idazketa sortzaileari buruz informazioa emateko.	7 min	Ordenagailua	Talde handian
Enkantea	-Dinamika azalduko zaie. -Enkanterako ideia-jasa egin. -Enkantean jokatu da.	Sormena lantzeko.	-3 min -10 min -15 min	Esleitutako produktuen papertxoak.	5 partaideko 4 talde eta 6 partaideko talde bat.
2. SAIOA (55min)					
Aurreko eguneko gogoratu eta dinamikaren sarrera.			5 min		Talde handian
Istoria sortu	Ipuinaren ilustrazioak emango zaizkie eta beraiek istorio berri bat idatzi beharko dute.	Sormena eta idazmena lantzeko.	15 min	Ipuineko ilustrazioak.	4 partaideko 4 talde eta 5 partaideko bi talde.
Istoria kontatu	Taldeko bozeramaileak ipuin berria kontatuko du.	-Beraien ideiak konpartitzeko. -Irakasle papera simulatzeko.	15 min		6 taldeetako bozeramaileak
Hausnarketa eta proposamen batzuk aurkeztu.	Hausnarketa galdera irekien bitartez egingo da eta elkarrizketan aurrera eginez, alternatibak edo proposamen berriak azalduko zaizkie.	-Beraien prozesua ezagutzeko. -Etorkizuneko irakasleek sormena hizkuntza arloarekin ere lotzeko.	15 min	Galdetegia	Talde handian

11.2 ERANSKINA:

Hasierako galdetegia

1. LHn, DBHn ala Batxilergoan, zein sentimendu sorrarazten zizkizueten hizkuntza edota literaturako ikasgaiaren klaseek? (Irakasleagatik, irakurri zenuten liburuagatik, metodologiagatik e.a.)
2. Zure ikaskuntza ibilbidean sormenezko idazketa landu duzue inoiz (hitz jolasak, ipuin ezberdinak nahastu, ipuinak asmatu...) ? -Baietz bada, zein frekuentziarekin lantzen zenituzten?
3. Nola edo zeren bidez uste duzue landu daitekeela sormena eskolan?
4. Zein da gaiarekiko duzuen interes maila? Zergatik?

11.3 ERANSKINA

2. Taula. Taldearen ebaluazio kualitatiboa (I): enkantea

*(4)Oso ondo, (3) Ondo, (2) Nahiko, 1 (Gutxi)				
Harridura egon da?	BAI		EZ	
Umore kutsua egon da?	BAI		EZ	
Denbora kudeatu da?	BAI		EZ	
Motibazioa/Jarrera	4	3	2	1
	Denek parte hartzaile jokatu dute.	Erdiak baino gehiagok parte hartzaile jokatu du.	Erdiak baino gutxiagok ez du motibaziorik erakutsi.	Ez dute gogorik erakutsi.
Komunikatzeko gaitasuna	4	3	2	1
	Argudio argiak eta onak eman dira. Puntu gehien lortu ditu. Talde handia konbentzitu dute.	Ondo argudiatu da, baina ez dira puntu gehien lortu.	Konbentzitzeko saiakera egon den arren, argudio kaxkarrak izan dira eta ez da punturik lortu.	Argudioak kaxkar xamar azaldu dira eta ez da punturik lortu.
Sormena	4	3	2	1
	5 argudio edo gehiago jaso dira.	4 argudio jaso dira.	3 argudio jaso dira.	Bi argudio besterik ez.

11.4 ERANSKINA

3. Taula. Zenbait proposamen

	UTOPIKOA 4=Erabat utopikoa. 3= Utopikoa 2= Utopia gutxikoa 1= Ez da ezer utopikoa	BALIAGARRIA 4=Erabat baliagarria. 3= Baliagarria 2= Baliagarritasun gutxi 1= Ez da ezer baliagarria	GUSTUKOA 4=Oso gustukoa. 3=Gustukoa 2=Ez oso gustukoa 1= Ez zait ezer gustatzen	Baliagarria eta gustukoaren batz bestekoa guztira
Binomio fantastikoa				
Foku aldaketa				
Hipotesi fantastikoa				
Ipuinen nahasketa				
Titularrak				
Eta gero zer?				
Karakterizazioa				
Bataz bestekoa guztira				
EMAITZA				
*Emaitzak honela interpretatu dira:				
0,5≤1,4=1 1,5≤2,4=2 2,5≤3,4=3 3,5≤4=4	Ez da utopikoa Utopia gutxikoa Utopikoa Erabat utopikoa	Ez da baliagarria Baliagarritasun gutxi Baliagarria Erabat baliagarria	Ez zait gustatzen Ez oso gustukoa Gustukoa Oso gustukoa	

11.5 ERANSKINA

4. Taula. Taldearen ebaluazio kualitatiboa (II): irudiekin istorioa

*(4)Oso ondo, (3) Ondo, (2) Nahiko, 1 (Gutxi)				
Harridura egon da?	BAI		EZ	
Haur Hezkuntzarako egokia da?	BAI		EZ	
Denbora kudeatu da?	BAI		EZ	
Titulua, hasiera, garapena eta bukaera dago?	BAI		EZ	
Errealitatek aldendu da?	BAI		EZ	
Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da? (Koherentzia)	BAI		EZ	
Testuaren ulergarritasuna.	4	3	2	1
	Testu argia, zehatza eta ulergarria bere osotasunean.	Testu ulergarria, baina planteamendua hobetu daiteke.	Argitasun falta izanik ere, istorioa ondorioztatu daiteke.	Ez da ulertzen. Argitasun edo zehaztasun falta.
Testuko hizkuntzaren zuzentasuna	4	3	2	1
	Ez dago akatsik.	Akats bi gehienez.	Hiru akats gehienez.	Lau akats edo gehiago.
Motibazioa/Jarrera	4	3	2	1
	Denek parte hartzaile jokatu dute eta lana aurrera eraman dute.	Gehienak motibatuta egon dira eta lana aurrera eraman da.	Erdia baino gutxiago egon dira motibatuta eta lana aurrera eraman da.	Ez dute motibaziorik izan eta ez dute ariketa egin.
Komunikatzeko gaitasuna	4	3	2	1
	Irakasle paperen sartu da eta entzuleen arreta lortu du.	Nahiz eta irakasle paperean sartu ez den, entzuleen arreta lortu du.	Irakasle paperean ez da sartu, baina ikasleen batzuen entzuteko interesa ikusi da.	Ez da irakasle paperean sartu eta ez da entzuleen arreta lortu.

11.6 ERANSKINA

Amaierako galdetegia

1. Zein zailtasun ikusi duzu/dituzu?
2. Gustatuko litzaizuke hizkuntza edo literatura ikasgaira bueltatu beharko bazina, horrelako ariketak egitea? Zergatik?
3. Idazketa sortzaileari buruz interes maila altuagoa duzula esango zenuke?
 - a) Ez, maila baxuagoa daukat orain.
 - b) Bai, maila altuagoa daukat orain.
 - c) Berdina, hasieran bezala.
4. Parte hartutako saioetan ludikotasunaren presentzia nabaritu duzu zugaran?
 - a) Bai
 - b) Ez
 - c) Erdipurdi

